

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

**Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakariaren 196/2026 ebazpena, irailaren 1ekoa, Barriako aterpetxea mantentzeko ofizialaren lanpostua betetzeko lehiaketa ebazten duena**

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren apirilaren 24ko 126/2026 Ebazpenaren bidez, Barriako aterpetxean mantentze-lanetako ofizial lanpostu bat betetzeko lehiaketa-rako deialdia egin zen, indarrean dagoen lanpostu-zerrendan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 78. eta 79. artikuluetan eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 97. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Deialdia eta oinarriak ALHAOean argitaratu ziren (59. zk., 2026ko maiatzaren 25ekoa), eta eskabideak aurkezteko epea ireki zen.

Oinarrietan aurreikusitako izapideak bete ondoren, epaimahai kalifikatzaileek Alexander Arrieta Vázquezen (NAN: 44.672.204V) aldeko bilkura-akta bidali dute, lehiaketa ebazteko proposamenarekin batera.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko lehendakaria den aldetik, funtzio publikoan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailarekin elkarlanean, erakunde autonomoko lan-kontratuko langileentzat eta funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuen deialdia eta oinarriak onartzea; bere ardura izango da, baita ere, prozedura horiek ebaztea.

Horregatik guztiagatik, ebazpen hau ematen da

#### EBAZPENA

Lehena.- Epaimahai kalifikatzaileek egindako ebazpen-proposamenean ezarritakoaren arabera deitutako lanpostua esleitzea, eta Barriako aterpetxeko mantentze-lanetako ofizialaren lanpostua (090114) behin betiko esleitzea Alexander Arrieta Vázquez jaunari.

Bigarrena.- Esleitutako destinoari ezin zaio uko egin, deialdi publiko bidez beste destino bat lortu denean izan ezik. Kasu horretan, interesduna izango da, lanpostua uzteko eguna baino lehen, bi lanpostuetako bat aukeratu beharko duena, eta nahitaez jakinarazi beharko dio idatziz Gazteriaren Foru Erakundeari, ebazpen hau argitaratu eta hiru egun balioduneko epean.

Hirugarrena.- Lanpostua uzteko eta jabetzan hartzeko epeak.

1. Aurreko destinoko lan-kontratuko langile finkoek lanpostua utziko dute ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean.

2. Lanpostuaz jabetzeak administrazio-ondorioak izango ditu aurreko destinoa utzi eta hurrengo egunean.

3. Lanpostu berrian egiaz hasteko epea hiru egun baliodunekoa izango da, lehengo lanpostua uzten denetik kontatzen hasita, non eta ez dakarren berekin langileak bizitokia aldatu beharra; edo, bestela, bizitokia aldatzea badakar, hilabeteko epean, baina, orduan, fede emateko eran egiaztatu beharko du bizitoki aldaketa. Ebazpenak berekin badakar jarduneko zerbitzura itzuli beharra, lanpostu berrian egiaz hasteko eguna lanpostuaz jabetzen den eguna bera izan beharko da.

4. Interesdunei emandako baimenak edo lizentziak amaitzen direnean hasiko dira zenbatzen lanpostuaz jabetzeko epeak. Salbuespen izango dira erditzeagatiko edo amatasunagatiko, aitatasunagatiko eta adopzioagatiko edo harreragatiko baimenak, kasu horiei urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 49. artikuluan xedatutakoa aplikatuko baitaie.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean. Hain zuzen, hala egin ahal izango da bat etorritz uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren, 46.1 artikuluekin eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 123. artikuluekin.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 1a

*Kultura eta Kirol diputatua*

**ANA MARIA DEL VAL SANCHO**